

Asturiar akademiaren aurkezpena

Iragan urtarrilaren 22an, Asturiar Akademiak bere lehenbiziko batzar publikoa ospatu zuen bere izate eta asmoak aurkeztuz. Egun hartan, arratsaldeko zazpi erdiektan, Oviedo-ko Museo de Bellas Artes (Velarde jauregia) jendez beterik aurkitu zen. Mahai buruan, igazko maiatean zizendatu ziren 14 urgazleak, zuzendariak eta beste zenbait oho-rezko. Hauen artean Espainiako lau Akademiaren ordezkariek ere bai, eta horien arduradun edo ordezkarri nagusiak ere oho-rezko izendapena jaso zuten. Pozarren ikusi genduen Fr. Luis Villasante euskaltzainburua ere Academia de la Lingua Asturiana-ko oho-rezko izendatzaez. Hamalau urgazleekin batean, bestealde, Academia horren lehen argitalpena ere aurkeztu zuten: Normes ortográficas y entamos de normalización deritzan liburuxka. Asturiar Akademia sortu berriaren lehen kezka, bertako hizkuntza hizkorteaz, hiru dialekto nagusiaren batasuna lortzea denez. Haietako ere, batasuneari ikusten dute indarra.

Lehen lehenik Lorenzo Novo Mier idazkaria mintzatu zen, batzar programa agertuz. Gero, Xose Luis García Arias lehenidazkaria banan bana izendatu zituen oho-rezko eta urgazleak, bakoitzari ezagurari bana emanaz. Ondoren, Roberto González Quevedo mintzatu zen urgazleen izenean. Olerkari eran mintzatu ere. Bere azalpena hunkigarria izan zen Asturiar-ko mintzaira baztertuaren alde; azkenik, "bable" iseka eta trufaka erabili dituenentzat barkapena eskatuz, historiariko gainetik ulertzearen ondorenak zirelako. Ondorean lau hizkuntzen ordezkariek mintzatu

ziren. Alonso Zamora Vicente, Real Academia Española-ko idazkariak zionez, "hizkuntza batentzat onena, mintzaitzen direnak egin lezaiekena da eta bere berpizte eta zabalkundeaz espainol guziak iriengo dira irabazle". Gero, Real Academia Gallega, Institut d'Estudis Catalans-en Filologia sailburuak eta Euskaltzaindiaren buruak, bakoitzak bere hizkuntzan eta gaztelaz agertu zuten asturiararen ongi nahia. Bukatzeak, García Arias lehenidazkariak hartu zuen azken hitza. Mamitsua izan zen bere hitzaldia, bai gogoz eta bai ideiaz.

Ondoko hilabeteetan urgazle gehiagoren izendapenak egingo dituzte, gero 21 numerokoren izendapenak bete arte; horrela, lanerako batzordeak sortuaz ekintza bizkortu ahal izateko. Hizkuntza, gramatika eta herri ta leku izenak dira beren kezka nagusiak. Aldizkari bat sortuko omen dute Lletres Asturianas izenburuz, Akademiaren lanak, berriak eta literatur sorketa izakiak bilduz. Baina, lehen lehenik Asturias-ko Kontseiluari bertako hizkuntza eskoletara eramatearen eskaria, haurrentzako literatur lehaketak, hiru dialektoen batasuna eta abar.

Hizkuntza batek behar duen ospea lortzea dute beste egingizkizunetako bai, bertakoen gogoa iratzartuz eta suspertuz. Hortarako, lehenik dialekto arrunt bat baino zenbait gehiago dela erakutsi behar dute. Dialekto izatekotan ere, gallegoa, katalana edo gaztelararen bezala, latinaren dialekto dela ezer izatekotan ere. Urte askotan egon bai da, zentralismo itatsuren eraginez gizartearen mespreziaturik, "bable"aren lepotik jarra eginaz. Bable izena bere

esta ezagutu-duela ehun edo berreun urtera arte, eta gehienetan gutietatik erabilia da. Baina aintzina-ko du bere izatea. Alfonso VI.ak eman zuen "Fuero de Avilés" delako hitza 1155ean Alfonso VII.ak birronartua izan zen eta bere kopia bat, 1289koa, erromanez jarria da bertako era zaharrenean. Beraz, XIII. mendearen azkenaldiko hiri da Asturiar hizkuntzan ezagutzen den lehen testua. Gainerakoan, ahozko literatura besterik ez da ezagutzen, eta hau ere geroago jauso. XVIII. mendearen azkenaldera, Jovellanos-ek proposatu zuen "bale" hizkuntza hiztegi bat egitea. Ordutua dugu nonbait bable izena, baina hiztegiak ez zen egin.

Arrigaria baderitzago ere, asturiar hizkuntzaren testurik zaharrenean esku-izkribuak Bizkaiko Diputazioako Bibliotekaren gordetzen dira: Marcelino Florez-en eskuz Maria Cristina Erregin Amaren ongiatorritz idatzia 1852an, Don Pedro-Xuanónen elkarriketak ota batekin jarraituz. Urte hartan inprimatua izan zen. Bizkaian gordetzen den esku-izkribuak hamar orri ditu. Bestealde, Bizkaiko Diputazioaren Biblioteka berean L.L. Bonaparte printzeak Londresen 1861ean inprimatu zuen *El Santu Evanxeliu de Nuestru Señor Xesu-Cristu segun San Mateu* delakoaren esku izkribua ere bai, oso osorik 64 orritan.

Azken urteotan lan handiak egin dituzte asturiarrek, bai bilketak eta bai sorketak. Poesia da gehien landu dutena, ipulak eta saiakerak ere badituzte eta lehen elberria ere argitaratu berri dute. Zenbait hiztegi ere eginak dituzte: Josefina Martínez Alvárez-ek erdialdeko dialekto nagusia-

rena eta L. Novo Mier Akademiako idazkariak orokorra.

Ekintzetarako, bereziki, jende gaztea dute. Gehienak umbertziariak. Lehendakaria bera, oraindik oso gaztea, Filologia katedratikoa da Oviédoko Unibertsitatean. Giro horri esker, Unibertsitateko geletan, Euskal Herrikoetan euskara baino gehiago entzuten da asturiarra. Akademiaren aurkezpeneko batzarrean agintarian aldetik hutsune nabari bazen ere, etorkizun oparotsua espero dugu gazteria berena dutenez.

Juan SAN MARTIN

El pasado día 22 de enero, la Academia de la Lingua Asturiana celebró su primera sesión pública con la presentación de los primeros miembros de honor y correspondientes, así como de su primera publicación, consistente en un libro de normas ortográficas y proyectos de normalización de la lengua.

Con gran asistencia de público, sobre todo universitario y juvenil, el acto tuvo lugar en el salón del Museo de Bellas Artes de Asturias (Palacio Velarde), en Oviedo, con la participación de miembros de las restantes Academias de España. Y en el transcurso de dicho acto se entregaron los distintivos a los 14 miembros correspondientes, nombrados en mayo de 1981, y a varios el de miembro de honor, entre los que figuraba Fr. Luis Villasante, presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca.

La nueva Academia tratará de impulsar la recuperación y normalización de la lengua asturiana o bable. Solicitará al Consejo Regional la inclusión en la enseñanza y publicará una revista, *Letras Asturianas*, que recogerá noticias y comentarios sobre actividades y textos de creación literaria, así mismo convocará concursos literarios para niños.

La alienación que sufría el asturiano parlante es otra de las tareas con las que se va a enfrentar la Academia. Aunque paradójico, tiene que luchar contra la incompreensión histórica arraigada al desprestigio que ha hecho comprender a los "bables" no es un valor que no es ni más ni menos que la lengua romance al igual que el castellano o el gallego.

Intervinieron con los honores, además de su presidente Fr. Luis García Arias, el señor Novo Mier, el señor Quevedo en representación de los miembros correspondientes responsables de las academias de castellano, gallego, catalán y portugués.

La copia hecha en Oviedo de Avilés" es el primer volumen de su astur arcaico, que se conoce. El cultivo literario no comenzaría hasta después. Curiosamente, los aspectos más importantes de aquella se conservan en la Biblioteca de la Diputación de Vizcaya.

De Bonaparte: la traducción hizo Marcelino Florez de la Reina Madre de Borbón, a Oviédano de julio de 1852. con Pedro-Xuanón, segundano y el Evangelio de San Juan.

El incremento literario en los últimos años es importante. En su cuenta son los géneros más cultivados. La unificación de los bloques dialectales es un problema, porque son muy complejos, que sin la unificación desarrollarán debidamente su función en la enseñanza y en el movimiento literario. Pero el mayor motivo importante es que es la concienciación de la familia y una juventud que reclama las reivindicaciones literarias.

Aintzaldu daigun Agate Deuna bihar dala Deun Agate, etxe honetan zortion hutsa betiko euko al dabe.

Era honetaz abesten genuen, oker ez banago, Santa Ageda bezperan Gasteizko kaleetan zehar, Arabako hiriburuan ikasten ari nintzela. Ehundaka bildu ohituen Plaza de España-ra eta denok batera abestu ondoren, sakabanatu egiten ginen -taldeka- kanta honen bidez entzuleen bihotza hunkitu... eta sakela arindu nahian. Ez dakit lehen helburua lortzen gemenetz. Bigarren, ordea, bai eta gutariko bik eramatzen zituzten otarrak ixorize, arraultze eta zenbait botela ardaz betetzen ziren. Gaueko hamaiak inguruan izango ziren Aide Zaharreko taberna batetara abiatzen ginenean, batutakoaz aforitxo bat egitera.

Aurten ere irudi berdina ikusi ahal izango da Gasteizen eta zementuaren kontra jotako makilen ritmo monotonoak euskal abesti eskale zaharrenean notai lagunduko die.

Naztik ospatzen da urteroko erronda hau Arabako hiriburuan? Egia esateko, ez dakit. Baina euskarako beritsoak kantatzearen oiturak urte gutxi duela esatera auzartuko nintzateke. Lojrikak eskaintzen dit erantzuna.

Santa Ageda eguna eta, batez ere, bezpera jai haundiak izan dira beti gasteiztar Arabako probintzian, Euskal Herriko guztietan bezala. Bezperako iluntzean irietzen ziren mutilak eskean, etxez etxe, eta batzen zuten aforiari bat egiteko erabiltzen zen. Ohi-

tura hau oso ondo dago jasota eliza eta kontseilu-liburuetan, haitian eliza nahiz herriak mutilie emandako dirulaguntzaren berri baitugu. Elizako agintariekin parte hartu behar izan zuten XVIII gn. mendean. Santa Ageda bezperan herriak gasteizko egindako kanpai-joaldiak urtez-urte luzatu egiten baituzten, nagusiagoen atsedena nabaritzen zelarik.

Arabak bezperan kantatutako koplak erdarazkoak ditugu, gehien batez. Honexegaitik noien lehen, Gasteizko koplak berria dela; herria Gasteizen, jakina. Santa Ageda omentzeko betidanik euskara erabili duen herria Aramaio da. Norbaitek zera esan dezake: Aramaioko izena ia astero alpaizten dudala. Ez zaio arrazoirik falta. Eta ahal dudan guztietan egingo dut, Araba Hego aldeko probintzien artean ezezagunena baldin bada, Aramaio dugu - ene ustez - Arabako ugarte bat, bertan eginko atzerketak nahiko azalekoak izan baitira, orain arte argitaratutakoak behintzat. Ez dut esan nahi direnak beste munduko zerik direnik. Ez. Baina, behinikpein, berriatuztik eskaini nahi dut. Eta honetxe bultzatzen nau nere jaioterriko xehetasunik ematera.

Azalpen honen ondoren, noan -beraz-, Aramaioko "Goiko Errota" baserrian entzundako zenbait beritso ematera. Adierazi dituztenez aspaldikoak dira. Bertakoak ote? Berritaratuak? Berz-

aramaiorrek ez badira ere hango bizilagunengan susuratuuta daukela esan daiteke. Beraz, ez dut ustez hain garrantzitsu denik jaiotagiria non dagokeen ezagutzea. (Errepika)

Sakua ere luteza degu Martin Kanasek egina Hua berteteko leku on baten allegatuko bagaina...!

Ate honek be zulus ba neuken errezule hemendixikan ikusten dala ixorize haga osue. Solomilotox luzie horrek bai koipe dultzie puxkarik kentzen ibili barik ekarri egizu gustie.

Hor goian dago iturri ura txorrotik erori etxe honitako zaldun guztiak hamalau urre zintzarri. Hamalau zintzarri eta zampi damaren eguzki hoiiek guztiok holan izanik gehiago dute merezi.

Etzeko andre leiala ona ezin esan ahalda Pazzo goizean jantzioko ditua here soñean zampi gona. Txuri ederra aztipko gorri nabarra gaineko herri honetan ez dago besterik bera hainako.

Larrosatxoak bost orri ditu kabinelarik hamabi etxe hontako dama gazteak

Ama Birjina dirudi. Etxe hontako dama gazteak arupegi txuri-gorria bere mairaila idurtitzen zait kabinelaren orria.

Alkate jaunaz egondut gera atzoko arratsaldean libertedea gurekin degu ibilitzeko eskean. Ibilitzeko eskean eta Jaun zerukoaren legean bestela sartuko gaituela

kartzela ihun batean. Kartzela ihun batean edo berak nahi duen lekuan eta ez gaituela aterako pare bat hilabetean.

Eta etxeko emakumeak ez baziren abeslariari sari onik eskaintzen, honela esaten zioten: Etxeko andra mondrogo ez non izilik egongo hik emaniko limasnarekin etxosuan asko edango.

Glorifiquemos a Santa Ageda mañana es su dia, en esta casa completa felicidad podrán tener por siempre.

Josemari VELEZ DE MENDIZABAL

De esta manera cantábamos por las calles vitorianas en mis años estudiantiles. Creo que hoy en día los grupos que van a honrar a la Santa mártir serían tan o más numerosos que entonces, dando a la capi-

Santa Ageda Araban

tal alavesa un año que, afortunadamente, se celebró en este año. Pero, desde que se celebró en los años sesenta, no se celebró en el resto de la provincia. Hoy se celebra en otros idiomas castellano y gallego, pero en euskara no se celebra en ningún momento.

El día de Santa Ageda, todo— la víspera, el día de la gran celebración en Oviedo— como en el resto de la provincia, los niños salen a cantar por las casas de ronda, y con ellos se preparaban una comida. Los libros de la Academia de la Lengua Asturiana se entregan así como los libros de la Academia de la Lengua Vasca. Se cumplida cuenta de la lengua asturiana organizada por la Academia de la Lengua Vasca. constata cómo en la lengua asturiana la Iglesia tuvo que preparar programas de campañas que se celebran en el momento de realizar los jóvenes una comunión general— éstos se preparan en las obligaciones molesto de los jóvenes.

En algunos lugares, en algunos momentos, algunos seguidores de la Academia de la Lengua Asturiana han entrado en polémica con los autores de los libros de la Academia de la Lengua Vasca, los autores de los libros de la Academia de la Lengua Vasca. Los libros de la Academia de la Lengua Asturiana se entregan así como los libros de la Academia de la Lengua Vasca. Se cumplida cuenta de la lengua asturiana organizada por la Academia de la Lengua Vasca. constata cómo en la lengua asturiana la Iglesia tuvo que preparar programas de campañas que se celebran en el momento de realizar los jóvenes una comunión general— éstos se preparan en las obligaciones molesto de los jóvenes.

Los versos que se han recopilado en el libro "Errota" de Aramaio, que se entregan así como los libros de la Academia de la Lengua Vasca. Los libros de la Academia de la Lengua Asturiana se entregan así como los libros de la Academia de la Lengua Vasca. Se cumplida cuenta de la lengua asturiana organizada por la Academia de la Lengua Vasca. constata cómo en la lengua asturiana la Iglesia tuvo que preparar programas de campañas que se celebran en el momento de realizar los jóvenes una comunión general— éstos se preparan en las obligaciones molesto de los jóvenes.